

# HIPOKRATES, MEDIKUNTZAREN OINARRIA

Anjel Bidaurrezaga

Jesukristo jaio aurreko V. mendean Medikuntza Hipokratikoa sortu zen, Kos eskolaren bitartez. Kos, Hipokratesen jaioterria da; oraingo Turkiatik hurbil dagoen irla txiki bat. Eskola horretako ikasleek “Corpus Hipocraticum” liburua idatzi zuten, bertan bere Maisuaren ezagumenduak bildu zituzte-larik. Beren meriturik garrantzitsuena gaixotasunen berezitasunak eta ondorioak sistematikoki ikastea izan zen. Ordurarte Medikuntzak azalpen mitikoa zuen, gaixotasunak jainkoen zigor be-

zala hartzen zirelako, baina orduan Medikuntza zientifikoari hasiera eman zitzaion.

Garai haietan gaixotasuna goiko jainkoen zigorra zenez, osasunera bihurtzeko ahalmena sorgin eta aztiak zeukaten. Hauek supergizakitza jotzen zirenez, jainkoen maltzurkeriak deusezteko zeregin erritualak burutzen zituzten. Beraz gaur diagnostikotik ezagutzen duguna haiek igarkizuntzat zeukaten, gure iragarpena seinaleztat zeukaten eta oraingo botika edo tratamenduak garai haietako pozoi edo konjurioak ziren.

Filosofia jaio zenean, Natura arrazionalki ikasteari ekin zioten. Filosofoak bizitzaren zergatiak eta legeak Naturan bilatzen saiatu ziren. Naturaren arau batzuk aurkitu zituztenean, Munduaren azalpen mitikoa hausten hasi zen. Aro horretako filosofo nagusiak (Aristoteles, Pitagoras eta Platon) Natura arrazoiaren ikuspuntutik azaltzen hasi ziren. Orduko Agrigentoko Enpedoklese, Naturak lau oinarri-elementu zitueneko teoria azaldu zuen. Teoria horretan bizidun guztiek 4 osagai zeuzkaten: ura, lurra, sua eta airea. Teoria hau Aristotelese

onartu egin zuen. Poliriok, Hipokratesen suhiak, bizidunen izaera Humore-teoriaren bidez azaldu nahi izan zuen, aurreko elementuen teoriarekin erlazionaturik. Humore bakoitzari oinarri-elementu bat dagokio: lurra humore fisikoari, ura humore likidoari, sua humore energetikoari eta airea humore gaseosoari. Humore bakoitzean elementu bat da nagusi, besteak ere barne daudelarik.

Aurreko teoriaz baliaturik, Hipokratesek bere teoria tipo-biologikoa asmatu zuen. Teoria hau Medikuntzari aplikatu zion; bere 4 humoreko teoria alegia. Humore bakoitza elementu ezberdinen nahasteaz osotzen da, elementu bat nagusi delarik. Modu honetan, behazun beltzean lurra da elementu nagusia, eta tipologia melanholikoari dagokio. Behazun horian sua da menperatzaile eta behazun-tipologiari dagokio. Odolean haizeak agintzen du eta odoltsuei dagokie. Guruin pituitarioan urak; patxadatsuei dagokie-nak. Humore baten nagusitasunak, eraketa-berezitasun batzuk sortuko ditu, bai alor fisikoan eta bai psikikoan. Era berean, eritasun berezi batzuk jasateko erraz-



tasuna izango lukete. Patxada-tsuak adibidez, argalak eta depre-siokorrak izango lirateke, eta pneumonia jasateko gaitasuna izango lukete. Hipokratesen us-tetan, eritasuna humoreen deso-rekagatik sortzen da; bai gehiegi dagoelako eta bai gutxiegi da-goelako. Humoreen proportziorik ezak beraiek desegitera bul-tzatzen ditu, usteltze-prozesu baten eraginez. Gaixotasunak sendatzea, orekara itzultzea da; falta dena emanez edo gehiegi dagoena kenduz.

Gizakiaren osatze-prozesuari edo orekara itzultzeko ahalmena-ri, **Phisis** deitu zion. Phisis dela-koa autorregulazio edo homeosta-si bezala itzul daiteke. Phisis edo senda-ingar hau eritasuna osa-tzeko nahikoa ez denean, Hipo-kratesek bizimodu osasuntsuaren neurriak aplikatu behar direla esan zuen, hau da, **Dietetika** egin behar zela. Bizimodu osasun-tsuaren ohiturak edo Dietetikak, bost atal nagusi ditu: elikadura, bizimodu aktiboa, lanbidea, ego-er ekonomikoa eta herri bakoitze-ko berezitasunak.

Elikaduraren desorekak gaixo-tasuna sor dezake; bai gehiegike-riagatik (adibidez obesitatea) eta baita urritasunagatik ere (abitami-nosiak adibidez). Atal honetan medikuaren lana nabaria izan dai-teke; helburu teraupetikoz dieta berezi batzuk aginduz, esaterako.

Bizimodu aktiboaren osaga-riak, gimnasia, kirolak, paseoak, indarrezko lehiaketak etab. dira. Osasunaren gizarte-alorra kontu-tan hartzen zuten hipokratikoen, nahiz eta oraingo kontzeptu mo-derno bat dirudien. Dietetikaren azken osagaien (herri bakoitzeko berezitasunetan), Hipokratesek eguraldia, geografia, erlijioa eta kultura hartzen zituen kontutan.

Gaixo baten phisia edo senda-ingarra eta medikuak agindutako neurri dietetikoak nahikoa ez ba-lira, **Terapeutika** erabili beharko dugu. Terapeutika gaixotasunen tratamendua da eta hiru motakoa izan daiteke: Terapeutika menta-la, fisikoa eta kimikoa.

Terapia mentala edo osasun-heziketa, gaixoaren heziketa da. Gorputza osatu aurretik arima osatu behar dela esan ohi da. Hipo-kratesek gaixoak medikuari hiru modutara lagun diezaiokeela esan zuen: bere senda-ingarrekin, bere obedientziarekin eta bere inteligentziarekin. Atal honetan tratamendu psikologikoak, psiko-analisia, hipnosia, etab. sartuko lirateke.

Terapeutika fisikoa elementu fisikoen bidez eragiten diren trata-menduak hartzen ditu bere baitan: magnetoterapia, hidroterapia, helioterapia, ...

Terapeutika kimikoa botiken tratamenduei dagokie eta hau da gaur egun Medikuntzan nagusi dena. Botikak iturri desberdinetatik datoz: landaretatik, animalien-gandik edo mineraletatik. Botikak lau helbururekin erabil daitezke.

Lau helburuok lau terapeutika-mota mugatzen dituzte:

1) Antipatia edo kontrakoaren terapeutika. Adibidez, sukarra jaisteko antitermikoak erabiltzea. Gauza bera esan dezakegu anti-biotikoei buruz.

2) Alopata edo efektu desber-dinen terapeutika. Hauek ez dute zuzenki aurka jokatzeko bideren batetik baizik. Hiper-tentsioan adibidez, diuretikoak erabiltzen dira.

3) Homeopatia edo efektu des-berdintsuen terapeutika. Adibi-dez, hantura kentzeko apis (liz-torren pozoitik hartutako hantura-



eragile bat) ematen da oso kon-tzentrazio txikietan.

4) Katarkikoak edo botika kanporatzaileak. Bost eratakoak daude: diuretikoak, anaforetikoak (izerdia ateratzen dute), purga-garriak, hemetikoak (botarazi egi-ten dute) eta espektoratzaileak.

Aurreko terapi mota guzti ho-riek, bakarka edo batera erabil daitezke. Gaixotasuna osatzea lortzen ez bada, kirurgiaz pentsatu beharra dago (Kirurgia Medikun-tzaren porrota dela esaten da). Ki-rurgiak ebakuntzarako teknika ugari ditu: erauzketa, konponketa, transplantea, ...

Azkenik, Hipokratesek kirur-giak bere helburua lortzen ez badu "suak" lortuko lukeela esaten zuen. Orduko su-kontzeptu hori gaur eguneko radioterapiaz alda dezakegu, eta minbizi askotan az-ken terapi mota bezala erabiltzen da orain.

Laburpen gisa, Hipokratesen terapiari buruz hau esan dezake-gu: Phisis, Dietetika, Terapeutika, Kirurgia eta Suak sendatzen ez duena ez du ezerk sendatuko. Phi-siaren bukaera da eta gaixoari he-riotza heltzen zaio. ■